

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUKO PARTAIDEEN FUNTZIOAK

Orientatzailea.

Orientazio zerbitzuko arduradun eta koordinatzaile da. Bere eginkizun nagusiak dira:

1.-Mailaz mailako tutoreen laguntzaz "lan eta ikasketa orientazio plana" egin eta kudeatzea, beronen ibilbidea koordinatuz eta aholkatuz.

2.-Ikasleen aniztasunaren gaineko ekintza guztietan koordinazio eta aholkatze lana aurrera eramatea: etorkinak, hezkuntzazko beharkizun bereziak eta berariazkoak ...

3.-Lanbide taldearen eta zentroz kanpoko laguntza taldeen (giza, osasun eta lan-zerbitzuak) jarduna koordinatzea.

4.-DBHren amaieran edo DBH titulazioa lortze arren ikasle bakoitzari, tutorearen laguntzaz, bere ikasketa ibilbideari buruzko aholkuan parte hartzea.

5.-Ikasleen familiekin lankidetan aritzea.

Terapeutika-Pedagogia irakasleak.

Honako lanak egiten dituzte:

1.-Hezkuntzazko beharkizun berezietako eta ikasteko zailtasun esanguratsuak dituzten ikasleekin lan egitea, taldeka edo bakarka, bai ohiko ikasgelan, bai laguntza bereziko gelan, eurentzat beren-beregi egindako curriculuak landuz.

2.-Hezkuntzazko beharkizun berezietako ikasleekin curriculuaren egokitzapena kasuan kasuko irakaslearekin aurrera eraman.

3.-Laguntza-ikasgelako ikasleen bilakaera gainbegiratzeko irakasle eta tutorearen laguntzaz familiari informazioa ematea.

Dibertsifikatze-curricularraren irakasleak.

Honako lanak egiten dituzte:

1.-Ibilbide formatibo horretarako proposatu diren ikasleentzat dibertsifikazio programak egitea, izan ditzaketen ikasketa arazoaren balorazioa eginaz.

2.-Aipaturiko ikasle hauek behar dituzten curriculu-egokitzapenak planifikatu, garatu eta aurrera eramatea.

3.-Programaren barruan dauden ikasleen lan eta ikasketa etorkizunari buruzko aholkua egiten euren iritzia ematea.